

ERANETS II. tailerra, animalia-ekoizpenei buruzko ikerketak lehenesteari buruzkoa

Europako FACCE ERA-GAS, SusAn eta ICT-AGRI 2 sareek tailer bateratu bat egin zuten 2016an, eta haren arrakasta dela eta, bigarren tailer bat egin zuten otsailean, Dublinen, gai hau ardatz hartuta: *“Zuhurtziaz arintzea animalia-ekoizpenetik datozen berotegi-efektuko gasen isurpenak”*.

FACCE ERA-GAS, ERA-Net SusAn eta ICT-AGRI 2 partzuergoetako ordezkariak hartu zuten parte tailer bateratuan, baita arlo tematikoetan izendatutako zientzia-adituek ere. **EAETik ELIKAK eta NEIKERek parte hartu zuten; ELIKAK SusAneko erakunde bazkide gisa, eta NEIKERek animalia-ekoizpeneko aditu gisa.**

II. tailer bateratu honetan, hasteko, abeltzaintza-ekoizpeneko iturri nagusietako berotegi-gasen isurpenak murrizteko etorkizun handiko estrategiak eztabaidatu ziren, eta, bigarrenik, iragarri berri den 2018ko deialdi bateraturako (urriaren 1ean aterako da) lehentasuna duten I+G+B gaiak identifikatu ziren. Horrez gain, finantzaketa-tresna posibleez eta estatuan eskuragarri dauden baliabideez ere hitz egin zen

Tailerrean, animalia-ekoizpeneko berotegi-efektuko gasak murrizteko neurri gisa proposatutako funtsezko hiru arlo hauek jorratu ziren:

- **Animalien elikakatearen ebaluazioa**
- **Simaurraren erabilera**
- **Nitrogeno-iraizketaren murrizketa**

Dokumentu honetan dago tailerrean sortutako informazio guztia: aurkezpenak, arlo bakoitzean lehentasuna duten I+G+B gaiak, eragina eta ondorioak.

2nd Joint Workshop report "Smart Mitigation of GHG Emissions from Livestock Production ([https://erasusan.eu/sites/default/files/Report on the 2nd Joint Workshop_Dublin_Feb2018_FINAL.pdf](https://erasusan.eu/sites/default/files/Report%20on%20the%202nd%20Joint%20Workshop_Dublin_Feb2018_FINAL.pdf))

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)